50 zbk.

kotarro

2020ko urtarrila

debaldeko alea

Garean-Jarduerak

PIRRITX, PORROTX, MARIMOTOTS
Otsailak 5, zortzi euro
17:30ean

LIZARRAN KANTUZ
Otsailak 29 eta martxoak 28
19:30ean Baxe Nabarra kaletik abiatuta

KANTUZ TXIKI
Otsailak 28, martxoak 27
18:00etan Bota Peñan

TXOKOLIPUINAK
Otsailak 26 eta martxoak 25
18:00etan La Bota elkartean

IRAKURLE KLUBA
Otsailak 27 eta martxoak 26
19:00etan Liburutegian

BESTELAKOAK
Otsailak 7, Bardoen sailkapen fasea
19:30ean Gure Geroa elkartean

Otsailak 15, Herri inauteriak
Egun osoan, Lizarra

Martxoak 7, "Hezkidetza jolasak" haur tailerra
12:00etan Lakarren (Deierri)

Martxoak 28, Bardoen final handia
17:00etan Lizarra Ikastolan

Garean Euskaldunon Elkartea

Euskarak 1, 25, 50... bingo!

Urteurren garaiak bizi ditugu hezkuntzan: Ikastolak mende erdia, Remontivalgo D ereduak laurdena, eta landa eskola berria estreinatuko da: Zumadia.

Euskararen eskaintza, baita hezkuntzaren munduan ere, denboraren joan-etorrian gero eta anitzagoa bilakatu da. Honela, urratu diren bide berriei esker, errazagoa da familien beharretara eta nahietara egokitzen diren aukerak topatzea: antolaketa eredua, eskolaren tamaina, gertutasuna, proiektu pedagogikoa, eskola komunitatea... Denek dute komunean kalitate handia, heziketa berritzailea eta hizkuntza-murgiltzearen teknika.

Hizkuntza-murgiltzearen oinarria da ikaslea bere lehen hizkuntza ez den beste batean eskolatzea, eskola-edukiak ikasten dituen bitartean bigarren hizkuntza hori ikas dezan. Edonola ere, gaur egungo eskaintza eleanitza da, menderatu nahi diren hasierako bi hizkuntzez gain, euskara eta gaztelania, atzerrikoak ere ezagutzea helburu baita, baita hezkuntza komunitateko etorkinenenak baloratzea ere. Horretan aitzindari izan dira eta esperientzia pedagogiko zabala metatu dute tokiko euskarazko ereduek. Horren lekuko ibilitako bidea eta zabaldu diren ate berriak.

Hizkuntza ereduaren hautua, zenbaitek, euskara ala ingelesaren arteko aukera uztartu-ezin baten moduan planteatzen dute. Ura eta olioa bezala, nahasten ez diren bi likido. Baina, ez al da hori gezur baten gainean eraikitako galdera? Eredu guztiek eskaintzen dituzte gaztelania maila altu bat eta atzerriko hizkuntza bat neurri batean menderatzea. Hortaz, zein da benetako galdera? Euskara ere modu eraginkorrean ikastea nahi dute gurasoek? Bada, ez izan zalantzarik: Lizarra Ikastolan, Remontival Ikastetxeko D ereduan edota inguruko landa eskoletan apustu ziurra duzu.

Remontival, Lizarraldeko D ereduko eskola publikoa

Gure eskola ingurune natural eta baketsu batean kokatuta dago. 1995ean guraso eta irakasle batzuen ahaleginari esker, D eredua ireki zen Remontivalen. Duela 25 urte, beraz, Lizarraldean euskarazko irakaskuntza publikoari hasiera eman zitzaion.

REMONTIVAL IP EUSKARAZ

Gizarteak dituen interesei erantzuteko kalitatezko eta doako hezkuntza eskaintzen dugu. Guretzat, aniztasuna aberastasuna da, eta arreta pertsonalizatua emanez erantzuten diogu. Inklusioaren aldeko apustua egiten dugu, kalitatezko hezkuntza jasotzeko aukera berdintasuna bermatuz.

Familien inplikazioa eta elkarlana funtsezkoa da gure proiektua aurrera eramateko. Familia eta irakaslego dinamiko, inplikatu eta hurbilekoaren arteko kooperazioari esker, urtean zehar era askotako burutzen ditugu: Olentzeroren kalejira, herri inauteriak, Iturriko Proiektua, eguneroko dinamiketan... Aurten, 25. Urteurrena ospatuko dugu eta ikasturtean zehar hainbat jarduera egingo ditugu.

Luzatu eskua euskarari!

Gure pedagogiaren oinarrian daude inklusioa ahalbidetzen duten metodologia aktiboak, ikuspegi eraikitzailea dutenak. Ikaskuntza interaktiboa, ikaskuntza kooperatiboa, solasaldi dialogikoak, irakurketa partekatua...

Informaziorako eta Komunikaziorako Teknologiak (IKT) ikasketetarako erabiltzea dugu helburu. Honela, Lehen Hezkuntzako gela guztiak pantaila digitalaz edota pantaila interaktiboez hornituta daude.

Bestetik, adimen emozionalaren gaitasunen garapena bermatzen dugu, ikasleei beharrezkoak diren teknikak eskainiz.

Bizikidetza planaren barruan Ikasle Laguntzaile programa dugu, ikasleek gatazkak kudeatzen ikas dezaten. Programa honek, partaidetzaren bitartez, elkarbizitza giro positiboa, baketsua, errespetuzkoa eta solidarioa lortu nahi du.

Euskara maite dugulako eta euskaraz bizi nahi dugulako, D eredua osatzen dugunok, euskara mimoz zaintzen dugu eta mimoz aritzen gara eskolako txoko eta geletan ilusioz beterik, euskal hiztun eleanitzak hezten.

Lizarra Ikastola: hezkuntza proiektua

Lizarra Ikastola herrian eta eskualdean oso errotuta dagoen guraso kooperatiba da, Nafarroako Ikastolen sareko partaidea. Oso gizatalde zabala, anitza, dinamikoa eta irekia hartzen du bere baitan. Ikasleen garapen integrala bilatzen du eleaniztasunean eta gaitasun bertikalean, lateralean eta emozionalean indarra jarriz.

Euskara eta euskal kulturaren bultzatzaile, 50 urte hauetan Lizarrerrirako Olentzero, inauteriko palokiak eta Santa Ageda bezalako ospakizunak berreskuratu ditu. 1600 ikasleohi euskaldun baino gehiago dauzka. Aurten Nafarroa Oinez ospatuko du Ikastolak.

Aitortza eta onespen ugari jaso izan du (Europako bikaintasun ziurtagiria, Elkarbizitza eta Sormen sari nazionalak…) eta etengabe aldatzen ari den gizartearen beharrei erantzutea du xede.

Etapak: Haur eskola, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza. Ikastolaren Hezkuntza Proiektuaren ardatz aipagarrienak:

- **KEINUKA**
  Konfidantza giroa Haur Hezkuntzan espazio zabaletan.
- **OPTIMIST**
  Adimen gaitasun ezberdinen entrenamendua kurrikulumaren edukiak barneratzeko garaian.
- **CREA**
  Sormena garatzeko programa.
- **PENTAZITATEA**
  Adimen emozionala eta soziala garatzea du xede eta pertsonen bost eremu lantzen ditu: identitatea, adimena, gorputza, harremanak eta emozioak.
- **KIVA**
  Eskola erasoak murriztu eta ekiditeko programa.
- **EKI-UBAGUA**
  Konpetentziak lantzen dituzten proiektu zabalak proposamen berritzaileekin.
- **MULTISENSORIAL GELA**
  Ezaugarri bereziak dituzten pertsonen beharrei erantzunez.
- **ERASMUS +**
  Ikasketa eta kultur trukea Europako gazte eta ikastetxeekin.
- **ELEANITZ**
  Ikasleen komunikazio gaitasunak euskaraz, gaztelera, ingelesez eta frantsesez hasiera goiztiarra eta integrazioaz sustatzen.
- **ZENTZUMENEN ESTIMULAZIO GOIZTIARRA, PREBENTZIOA ETA DIAGNOSIA**
  MER (Mugimendu erritmikoaren Terapia), logopedia, diagnosi froga ezberdinak, entzumenaren eta mugimenduaren estimulazioa.

Zumadia eskola: sustraiak oinetan eta hegalak buruan

Zumadia Eskola Publikoa aldarrikapen luze baten emaitza da, amets baten eta elkarlanaren fruitua: Deierri, Gesalatz, Lezaun eta Abartzuzako ikasleei harrera egiten dien zonaldeko landa eskola. Proiektu baten jarraipena da, landa eskola txikietan garatu dena eta gaur, ongi ureztatuta eta elikatuta, indartsu eta sendo hazten ari dena.

Landa eskolak inoiz baino beharrezkoagoak dira, landa eremuaren etorkizunarekin hertsiki lotuta baitaude. Despopulatzea ekidin eta bizi baldintzak hobetzeko, besteak beste, funtsezkoa da zerbitzuak eskaintzea: kalitatezko osasun, kultura, garraio zein hezkuntza zerbitzuak.

Gure eskolan, haurrak haien inguru sozial eta naturalean hazi eta sozializatzen dira. Zumadia eskola familiei, zonaldeko jendeari eta herrietako errealitateari irekita egon nahi duen eskola da; inguruari lotuta eta bertan errotuta. Eskola berria inguru naturalean kokatuta dago eta haurrek natura ezagutzea, baloratzea eta harekin harremantzen ikastea nahi dugu. Era berean, gure eskola munduari eta teknologia eta zientziaren gaurko errealitateri ere irekita dago eta eguneroko lanean presente dugu. Eraikin berriak, "passivehaus" parametroetan eraikia, espazio zabal, argi eta irekiak eta azpiegituraz ongi ornituak izango ditu, garraio eta jantoki zerbitzuak barne.

Eskola txikia da, baina hori da, hain zuzen ere, gure indarra. Ikasle gutxi izateak –aurten 47 ikasle daude eskolatuta– berrikuntza proiektuak errazago aurrera eramateko, ikasleei arreta pertsonalizatuagoa eskaintzeko eta familiekin harreman estu eta hurbila izateko aukera ematen digu; taldeetan bi mailatako ikasleak batera aritzeak, aberastasuna eta aniztasuna ematen dio ikasketa prozesuari. Datorren ikasturtean (2020-2021), A ereduko azken taldeak eskolak amaituko ditu eta ikasle guztiak D eredukoak izango dira. Zumadia eskola Lizarraldeko Landa Eskoletako sarearen parte da, eta dagoeneko lau eskolatan D eredua eskaintzen da (Abartzuza, Allo, Antzin eta Zudairi).

ekolore lizarra .com
Mundua deskubritzeko jostailu eta jolasak
Kale Nagusia, 23 · Estella-Lizarra · 948 985 306

LIBRERIA-PAPELERIA
INO
LIBURUDENDA-PAPERDENDA
Zapateria Kalea, 3
Tel. 948 550 383 • ESTELLA-LIZARRA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots Lizarran

Urtero bezala, eta 2009tik hamabi urte dira jada, Gareanen eskutik Euskal Herriko pailazo koadrillarik ezagunena etorriko da Lizarraldera

Urteak joan, urteak etorri, ezinbesteko bisita bilakatu da pailazoena. Urtero ehundaka haur eta guraso biltzen dira haien ingurura denboraldiko ikuskizun berriaz gozatzeko. Lizarrako hitzordua aspaldikoa bada ere, zer esanik ez pailazo koadrilla honek, kideen gorabehera izan arren, egin duen ibilbidea: 1980ko hamarkadan ekin zioten pailazogintzari.

Garai hartako giroan gaztelania zen nagusi, erabat, eta euskara bultzatu nahiak eraman zituen ekintzaile izatera. Hortaz, euskara eta bizipoza uztartuz, sketchak eta saioak egiten hasi ziren. Denborarekin baina, haurren eredu bilakatzen zirela ohartu ziren, hau da, haurrek esandakoak eta egindakoak imitatzen zituztela. Orduan, zergatik ez probestu jada euskara eta poza transmititzen zutela, aldi berean hezitzaile izanez?

Ainhoa Ganaren hitzetan "Euskal pailazogintza sozio-hezitzailea" genuke hauen lana: Familia aniztasuna (adopzioa, guraso bananduak, migranteak, heteroarautik kanpokoak…), minbizia, haurdunaldia eta erditzea… gai asko izan dira mimoz eta xamurtasunez landu dituztenak. Haurren tamaina, ezagutza eta esperientzia txikia izan baitaitezke, baina mundu erraldoia, bihotz handia eta ikasteko irrika ere badute.

Beraz, jaun-andreok, txiki zein handi, zuokin guztiokin otsailaren 5ean 17:30ean: *Bizi dantza* ikuskizuna. "Pozak eta tristurak azaltzeko dantzatzen gara. Barruak agintzen digunean dantzatzen gara. Gure kultura ospatu eta erituak berritzeko. Garen hori mugimenduan jartzeko."

Oraingo honetan, eta dantza ardatz duen ikuskizuna izanik, zorioneko gonbidatu itzela izanen dugu bertan: Larraiza dantza taldea.



Foto-inkesta

Euskara belaunaldi aldaketetan

Hizkuntzek bizirauteko berebiziko elementua da belaunaldi aldaketarena. Foto-inkesta honetan, gazteen iritziak jaso ditugu ezagutzeko euskararen transmisioa nola jaso eta nola emango duten. Gaurko hezkuntza, ondorengoen hizkuntza.

1- Hizkuntzak hiztunak behar ditu, nola handitu euskal hiztunen kopurua?

2- Hizkuntzari dagokionez, zer transmititu dizute zure gurasoek?

3- Zer transmitituko zenieke zure seme-alabei?

Xabier Viana

1. Euskaraz egiteko aukera eskasak ditugu gure ingurune sozialean. Hiztun kopurua gora doa, baina ingurunea erdalduna da. Ingurune sozial hori euskaldundu beharko genuke.

2. Nire gurasoek txikitan ez zuten euskara ikasteko aukerarik, eta garrantzi handia izan du beraientzat bere semea altxor honen eramaile izatea.

3- Modu berean baina ezberdintasun garrantzitsu batekin, transmisio hori euskaraz izango dela, haien ingurune sozialaren atal bat euskaldunduz.

Loiola Crespo

1. Zortedunak gara gure herrian euskararen inguruan lan egiten duten hainbat erakunde daudelako eta gure hizkuntzaren inguruko jarduera asko antolatzen direlako. Horregatik, euskal hiztunen kopurua handitze aldera oso garrantzitsua iruditzen zait jendeak horrelako jardueretan parte hartzea eta ahal duen heinean giro euskaldun batean bizi edo lan egitea, gure hizkuntza eguneroko hizkuntza bihurtuz eta ondokoak bat egitera animatuz.

2. Nire gurasoek oso argi zuten euren seme-alabak giro euskaldun batean jaio eta heztea nahi zutela, gure ama hizkuntza ikastea. Beti azpimarratu digute niri eta nire anai-arrebei pribilejiatu batzuk garela hemengo eta hain gurea den hizkuntza bat ikasteko aukera izan dugulako. Ez digute inoiz trabarik ezta oztoporik jarri nahi dugun hizkuntza ikasteko.

3. Nik, nire seme-alabei, nire gurasoek transmititu didatena transmitituko nieke. Nire gurasoek euskaraz ikasteko eta bizitzeko askatasuna eman didatelako.

Nahikari Vegas

1. Dudarik gabe. Nik, nire hizkuntza den euskararen kasuan hitz eginen dut. Euskarak hiztunak behar ditu, erabiltzaileak, egunero, uneoro...bizirik manten dadin eta jarrai dezan. Galdera ona da hori: nola handitu euskal hiztunen kopurua? Lan franko dugu gurea den hau mantentzen. Segi dezagun gure artean solasten eta zabaltzen!!

2. Betidanik egon da euskara bizirik gure familian. Hizkuntza indartzeko familia barruko hizkuntza transmisioa oinarrizko bitartekoa bada ere, hizkuntza tipologia ezberdinak dituzten gurasoek gaitasun eta motibazio ezberdinak dituzte pauso hau eman ahal izateko. Nire kasuan, aldiz, euskara lehentasuna izan da eta horrela izaten jarraituko du.

3. Hemendik aurrera erronka asko daude. Erran bezala, ama hizkuntza dudan euskara ez da inoiz desagertuko (nirekin bat datorren berezko zerbait da) eta espero dut nire ondorengoek (hala bada, kar-kar) nire espiritu, indar eta gogo berdinak izan dezatela.

Nirekin egin zuten bezala hori bermatzen saiatuko naiz.

Euskarak egiten gaitu euskaldun!

Aimar Oses

1. Nire ustez Gobernuak hizkuntza gehiago sustatu beharko luke, gaur egun euskarak errepresio izugarria jasaten duelako.

2. Hizkuntza geurea dela, nafarren hizkuntza. Nire gurasoek ez dakite euskaraz, baina nire birramonak bazekien. Euskara nire sustraiak direla transmititu didate.

3. Nire gurasoek transmititu didatena.

denborapasak

Gurutzegramak



Eskolak

Goitik behera:

1- Ez da etorri, ….. dabil.
2- Ordutegi barruan, gehien maite dutena.
3- Irakasten saiatzen dena.
6- Ikasleen bilgunea.

Ezker eskuin:

4- Ikasleek gorroto dituzte.
5- Bizkarrean.
7- Orain zuriak dira.
8- Ikasleek maite dituzte.

Euskalglifoa

Haur txikientzat

Lizarrako Inauteriak 2020

Gaur egun, Lizarrako inauteriek hiru asteburu betetzen dituzte. Aurtengo datak hurrengoak dira:

Kaldereroak. Otsailak 8

Dantzari Ohiak eta kaldereroz jantzitako hainbat lagun ateratzen dira. Hauek, fanfarrearen laguntzaz, dantza eta kanta egiten dute astoa eta gurdiaren atzetik. Bukaeran txokolatada egiten dute.
Aurtengo berrikuntza: Saria emango zaio mozorro onenari.

Herri inauteriak. Otsailak 15

Badira hainbat urte herri inauteriak Lizarran ospatzen direnetik. La Bota Peñak bultzatuta, 1993an hasi ziren, inauteri koloretsuen bezperan, ostiralean beraz. Hauetan mota askotako pertsonaiak ateratzen ziren arrats-gaueko kalejiran.
Gainera, azken urteotan ohikoak ziren Lizarrako bi pertsonaiei (palokia eta higia) beste bat gehitu zitzaion, eta horrekin indarra hartu: ikazkina.
Aurtengo berrikuntzak:

- Goizeko umeen kalejiran beste talde txiki bat aterako da.
- Oteitzako Arrano Elkarteak pertsonaia berri bat ekarriko du.
- Arratsaldeko kalejiran beste karroza bat aterako da.
- Gaueko kalejirari bukaera emateko, Foru plazan sua berreskuratuko dugu. Bertan, suaren inguruan, besteren artean ikazkin-dantza egingo dugu.

Inauteri koloretsuak. Otsailak 22

Aurtengo berrikuntzak:

- Arratsaldean aurtengo kintako kideek kaleak girotuko dituzte mozorro eta musikarekin.
- Eta, zezensuzkoaren ondoren, pintxo-potea eta photocall-a egingo dute, musikarekin lagunduta.

Bertso-zutabe

Urte berria, asmo berriak

Egilea: *Mikel Pinillos*
Doinua: *Pello Joxepe*

Urtarrila da, abiatu da
bi mila hogei urtea
joera dugu asmo berri ta
espektatibak puztea
kirola egin, dieta berri bat
erretzeari uztea
ez al da nahiko oraindik hemen
gabiltzala ikustea.

Gabon hauetan nahi baino gehio
loditu zaigu gerria
larritasunez ikusten dugu
pisuak duen neurria
gure burua maitatu gabe
ezin da lortu berria
bizi gaitezen hemen ta orain
zai daukagu hilerria.

Ez dezagula madarikatu
jan egindako pastela
ez du merezi gure burua
estutzen segi horrela
espektatibak lortze lanetan
itoko gara bestela
utikan asmo berri guztiak
ta bete ez daitezela!

kotarro
50. zenbakia

Zapateria, 4 - 4.
31200 Lizarra - Nafarroa
Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:
Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak

Diseinua eta maketazioa:
Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007
Ale kopurua: 700

paper birziklatua

Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
AYUNTAMIENTO ESTELLA-LIZARRA UDALA

Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluen edukinaren ardurarik Garean Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.